



## 198. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaiako herrian, 2024ko uztailaren 24an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal

Bertaratutakoak: Argi Yeregui Egaña  
Aitor Manterola Garate  
Marina Bidasoro Arozena  
Asier Arakistain Alberdi  
Maite Egaña Larrañaga  
Itziar Etxabe Etxabe  
Joxe Mari Azkue Castillo  
Unai Larrañaga Uranga  
Nerea Goiria Mendiola  
Jose Miguel Antia Albizu  
Ainhoa Illarramendi Azkue  
Iker Mardaras Arrieta  
Ander Olaizola Esnal  
Mireia Aranbarri Ieregi  
Xabier Odriozola Etxaniz  
Duñike Agirrezabalaga Ugarte

Idazkaria: Alexander Marañon Muñoz

Alkateak hasiera eman dio osoko bilkurari.

### ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

#### 1.- AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA, BIDEZKO BADA:

(197. zk. 2024.06.27)

197. akta aho batez onartu dute.



**2.1.- UDALAREN UDAL AURREKONTUAREN 12. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDE-ZKOA BADA.**

**“Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren 2024-KALD-000012-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena.”**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia azaldu ondoren,

**ERABAKI DU**

**Lehenengoa.-** 2024ko uztailaren 17an ospatzen den batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzia modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	18.150,00	16.601,00	1.549,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>18.150,00</b>	<b>16.601,00</b>	<b>1.549,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastuak (altak)**

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
6	INBERTSIO ERREALAK	0,00	16.601,00	16.601,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>0,00</b>	<b>16.601,00</b>	<b>16.601,00</b>

ESKU22b79c16-d678-468c-b573-98ff80b42a2a



**Bigarrena.-** Kreditu transferentzien espedientea onartzeko, ez dago jarraitu beharrik aurrekontua onartzeko aurreikusitako informazio, erreklamazio, errekurtsio eta publizitate araurik. Behin, Osoko Bilkurak onartzen duenean behin betiko bihurtuko da.

Aldeko botoak: 3 (2 EH BILDU, 1 EAJ).

Aurkako botoak: 2 (2 EAJ).

Abstentzioa: 0.

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Batzordeburua

Kontu-hartzailea

Alkateak lehendabizi azaldu du irizpenean akats bat dagoela bozkak zeazterakoan. Aldeko bozkak dira EH Bildu eta Euskal sozialistarena, eta ez EAJrenak. Hau zuzendu ondoren alkateak Udaleren aurrekontuaren 12. Kreditu aldaketa azaldu du.

IÑAKI OSTOLAZA: Kreditu transferentzien proposamena da ba gimnasioko makineria murriztea, dagoen diru partidan 16.601 eurotan eta partida berri bat izendatzea eta da harmailak mugikorak erosi ahal izateko Zerbaiz komentatzeko?

ANDER OLAIZOLA ESNAL: Bai komentatzeko ba gu harmaila mugikorra erostearekin guztiz bat gatozela, harmaila mugikorra erosteko eta beharrezkoa izango dala etorkizuneko hainbat ekitalditan erabiltzeko, batez ere kirolakinetan lotuta baino harridura sortu diguna da ba dirua gimnasiko makinaria erosteko diru partidatik hartzea. Ze uste dugu makina askok berrikuntza bat behar dutela eta makineria berriak ekartzea ere interesgarria da.

Eta horrela, ba hainbat erabiltzaileekin hitz eginda, beharren zerrenda bat osatu dugu eta berak eskatuta bezala kirol teknikariari bidali diegu.

Eta uste dugu baita ba berrikuntza progresiboa izan behar dela. Hau da, pixkanaka berrikuntza behar duten makinaria erostean joan behar dela aurrekontu ezberdinetan ta beraz, ba 2024an makina garrantzitsurik ez erostia ba progresibidade honen kontra dijoala.

Gero kirol batzordean beste nolabaiteko kreditu aldaketa bat egiteko adostasun jarrera izan dugu baina iruditu zaigu erabaki hau hartuta zeola uztailaren 11rako, eta baita ere Zumaiako kirola sustatzeko kiroldegiko gimnasio gela herriko fitness erreferentzia izatea ezinestekoa dela, horrela ba zerbitzu publikoa sustatuz.

Eta bueno hau guztia esanda, ba abstentzioa bozkatuko deula adostasunean oinarritutako erabakiak hartu nahi badira batzordin aurretikan beste bilera bat



egiteko prest gaudela, eta espero deula ba urtea bukatu baino lehen 16.600 euro hauek ba partida originalea bueltatzea kreditu aldaketa batekin.

IÑAKI OSTOLAZA: Bale, eskerrik asko Ander. Zerbait komentatzeko Duñike? , Ez.

Bueno nik usten det kirol batzordean azalpen bat edo beste eman zizula kirol arduradunak. nik bakarrikan komentatu hor badagoela diru partida bat zearako, gimnasioko makinarietzako diala 18.150, diru partida hori orain artean kontratu txikien bidez eginda, eta kontuhartzaitzatikan esan zaio, esan da, egin behar dala lizitatu partida hori, ezin daitekeela kontratu txikien bidez egin, eta orduan ikusirik lizitatzeko denbora gehiegirik ez zela geatzen eta partida hor geatu zintezkeela ba bueno pentsatu gendun hori zala aukera bat, ja ke behar hori sortu zan harmaila mugikorrak erostekoa eta beharrezkoa ikusi zanez ba hortikan ateratzea.

Horrek eztu esan nahi gimnasioak ez dakanik, ez dunik behar Kiroldegiak, eta behar duena da, ez soilik erostea, baizik eta erosi eta mantenua egin, baina horretarako lizitatu egin behar da.

Eta orduan lizitatzeko. gauzak ba bueno denbora gehiokin egin behar dira ta kasu hontan ez zun ematen denbora lizitatu, atera eta ejerzizio honetan egiteko, hori da, oker edo edo gaizki, hori da behintzat azalduta.

Aldeko bozkak? Abstentzioak? kontrako bozkak?.

**Aldeko botoak: 11 boto (10 EH BILDU eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 6 (EAJ-PNV)**

### **ERABAKIA:**

Udalaren Udal Aurrekontuaren 12. Kreditu aldaketa onartu da.



## 2.2.-, 2023KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, BIDEZKOA BADA

### 2024KO EKAINAREN 19KO, KONTUEN BATZORDE BEREZIKO IRIZPENA ETA TXOSTENA, 2023KO KONTU OROKORRARI DAGOKION ONARPENA.

#### AURREKARIAK

1.- 2024ko martxoaren 27an 2023ko aurrekontuen likidazioak onartzen dira, Udalari eta Erakunde Autonomoei dagozkienak, Kirol Patronatua.

2.- 2024ko ekainaren 19an, 2023ko Kontu Orokorra aurkezten da Kontuen Batzorde Berezian ekitaldian zehar burutu diren aurrekontu-eragiketak guztiak, aurrekontuz kanpokoak, ondarezkoak eta diruzaintzakoak jasotzen ditu eta kopuru eta kontzeptu garrantzitsuenak aztertzen dira.

#### IRIZPENA ETA TXOSTENA

Ondorioz, batzorde honek aldeko irizpena jasotzen du honako botoekin:

Aldeko botoak: 5 (2 EH BILDU, 2 EAJ, 1 PSE).

Abstentzioak: 0.

Aurkako botoak: 0.

Irizpen hau onartzea eta honako txosten hau azaltzea:

a- Jendaurrera azalduko da 15 egunetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikulua araberan.

b- Jendaurrean jartzeko epea amaitu da, eta erreklamaziorik edo eragozpenik ez denez aurkeztu, Udalbatzaren Osoko Bilkurara eramango da, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua araberan, onartu ahal izateko.

c- Kontu Orokorraren berri emango zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, behar bezala onetsita, haren arautegian ezarritakoaren arabera, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.5 artikulua araberan.

Kontu Orokorra Osoko Bilkurara eramatea onartu da.

Zumaian,

Batzordeburua

Kontu-hartzailea



IÑAKI OSTOLAZA: 2023ko kontu orokorrak batzorde berezian aurkeztu ziren, likidazioa baita ere patronatukoak, udaletzekuak eta gero ekarri **zan pleno** honetara, osoko bilkura honetara eta onartu zan baita ere behin-behinekoz eta gaur ekartzen duguna da ba gauza bera epeak eta helegitatea pasa ondoren, behin betiko onarpena egitea, bidezkoa bada.

Eztakit. Zerbait komentatu nahi baldin badezue, ba bozkatu eingo dugu.

Ondoren bozka eskatu du.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** 2023ko KONTU OROKORRAK BEHIN BETIKOZ ONARTU DIRA.

a- Jendaurrera azalduko da 15 egunetan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.3 artikulua araberara.

b- Jendurrean jartzeko epea amaitu da, eta erreklamaziorik edo eragozpenik ez denez aurkeztu, Udalbatzaren Osoko Bilkurara eramango da, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua araberara, onartu ahal izateko.

c- Kontu Orokorraren berri emango zaio Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, behar bezala onetsita, haren arautegian ezarritakoaren araberara, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.5 artikulua araberara.



### **2.3.- 2024RAKO ZUMAIKO UDALEKO LANGILEEN ETA ORDEZKARI POLITIKOEN ORDAINSARIEN %2 IGOERAREN ONARPENA, EKAINAREN 26KO 4/2024 ERREGE LEGE DEKRETUAK ARAUTZEN DUENAREN ARABERA**

**2024KO UZTAILAREN 17KO ANTOLAKUNTZA BATZORDEAREN IRIZPENA, 2024RAKO ZUMAIKO UDALEKO LANGILEEN ETA ORDEZKARI POLITIKOEN ORDAINSARIEN %2 IGOERAREN ONARPENAREN INGURUAN, EKAINAREN 26KO 4/2024 ERREGE LEGE DEKRETUAK ARAUTZEN DUENAREN ARABERA.**

**DICTAMEN DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE "ANTOLAKUNTZA" DE 17 DE JULIO DE 2024 SOBRE LA APROBACIÓN DE LA SUBIDA DEL 2% PARA EL AÑO 2024 DE LAS RETRIBUCIONES DEL PERSONAL Y CARGOS POLITICOS DEL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA COMO CONSECUENCIA DE LA APLICACIÓN DEL REAL DECRETO-LEY 4/2024, DE 26 DE JUNIO**

#### **AURREKARIAK**

**1.-** 2024ko ekainaren 25ean, ministroen kontseiluaren erabakiz, ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretua onartu zen Ukrainiako eta Ekialde Urbileko gatazkek eragindako ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri luzatzen dituen eta zerga, energia eta gizarte arloetan premiazko neurriak hartzen dituen. Neurri hauek 2024ko ekainaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

**2.-** Sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsari-igoerei dagokionez, aipatutako Errege Lege Dekretuko 6. artikuluan arautzen duenaren arabera:

**1. 2024. urtean, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen ordainsarietarako gehieneko igoera globala izan ahal izango dute, 2023ko abenduaren 31n indarrean zeuden aldean, azken horietan barne hartuta 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorre buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoaren ondoriozko igoerak, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzinatez dagokionez. Ordainsari-**

#### **ANTECEDENTES**

**1.-** El 25 de junio de 2024 por acuerdo de consejo de ministros se ha aprobado el Real Decreto-Ley 4/2024, de 26 de junio, por el que se prorrogan determinadas medidas para afrontar las consecuencias económicas y sociales derivadas de los conflictos en Ucrania y Oriente Próximo y se adoptan medidas urgentes en materia fiscal, energética y social. Dichas medidas se publicaron en el Boletín Oficial del Estado de 27 de junio de 2024.

**2.-** En lo referente a los incrementos retributivos del personal al servicio del sector público, el mencionado Real Decreto-Ley, regula en el artículo 6 lo siguiente:

**1. En el año 2024, las retribuciones del personal al servicio del sector público podrán experimentar un incremento global máximo del 2 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2023, incluidos en estas últimas los incrementos derivados de lo previsto en el artículo 19.Dos.2 de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo. Este incremento**



**igoera horrek 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak.**

**3.-** 2024rako udal aurrekontuetako I kapituluan aurreikusi da ordainsarien %2ko igoera estaltzeko kreditua.

**retributivo tendrá efectos económicos desde el 1 de enero de 2024.**

**3.-** En el Capítulo I de los Presupuestos municipales para el 2024, se ha previsto el crédito suficiente para cubrir el gasto de la subida del 2 %.

### IRIZPENA

Ondorioz, 2024ko uztailaren 17ko Antolakuntza Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Aldeko bozka: 5 (2 EH-BILDU, 2 EAJ, 1 Euskal Sozialistak)

Kontrako bozka:

Abstentzioa:

**Aldeko** irizpena eman du eta honako Proposamen hau Osoko Bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.i) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- 2024ko ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuan araututakoaren arabera, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoa kontuan izanik, Zumaiako Udaleko langileen ordainsariei, 2024ko urtarrilaren 1eko eragin datatik %2ko igoera aplikatzea.

### DICTAMEN

En consecuencia, la Comisión Informativa de Antolakuntza de fecha de 17 de julio de 2024, tras la siguiente votación:

Votos a favor: 5 (2 EH-BILDU, 2 EAJ, 1 Euskal Sozialistak)

Votos en contra:

Abstención:

**Aprobar** el presente dictamen de conformidad al artículo 135,3 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales aprobado por Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, y someterlo, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 22.2.I) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local , a la consideración del Pleno de la Corporación que deberá adoptar el acuerdo con el quórum de la mayoría simple de sus miembros presentes establecido en el art. 47 de la Ley mencionada, la siguiente **PROPUESTA**:

1.- Teniendo en cuenta lo regulado en el Real Decreto-Ley 4/2024, de 26 de junio de 2024 y según lo dispuesto en el artículo 19.Dos.2 de la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023, aprobar la subida del 2% con efecto retroactivo desde el 1 de enero de 2024 de las retribuciones del personal del Ayuntamiento de Zumaiá



2.- Horrekin batera, Zumaiako kargu politikoei 2024ko urtarrilaren 1eko eragin datatik aipatutako %2ko igoera aplikatzea.

2.- Asimismo aplicar la subida mencionada de 2% con efecto retroactivo desde el 1 de enero de 2024 a los cargos políticos del Ayuntamiento de Zumaia.

3.- Aipatutako igoeraren ordainketa abuztuan egingo da.

3.- La subida mencionada se abonará en agosto.

Asier Arakistain Alberdi

Pertsonal batzordeburua

IÑAKI OSTOLAZA: Ministro kontseiluak erabaki zun funtzionario guztien soldatak % 2 igoko ziala 2024an eta geratzen zela gaixki, oker ez baldin banago, 0,5eko igoera bat ikusirik barne produktu gordinaren eboluzioan, baina oraingoz behintza %2ko soldata igoera.

Ondoren bozka eskatu du.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

### **ERABAKIA:**

1.- 2024ko ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuan araututakoaren arabera, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19.Bi.2 artikuluan aurreikusitakoa kontuan izanik, Zumaiako Udaleko langileen ordainsariei, 2024ko urtarrilaren 1eko eragin datatik %2ko igoera aplikatzea.

2.- Horrekin batera, Zumaiako kargu politikoei 2024ko urtarrilaren 1eko eragin datatik aipatutako %2ko igoera aplikatzea.

3.- Aipatutako igoeraren ordainketa abuztuan egingo da.



## 2.4.- 2.4.- A-117 PANTEOIAREN TITULARTASUNA EMATEAREN ONDORIOZKO ADMINISTRAZIO-EGINTZA BERRIKUSTEA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.

### 2024KO UZTAILAREN 17EKO LURRALDEA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENNA, A-117 PANTEOIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO ERABAKIA OFIZIOZ BERRIKUSTEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEKO.

#### AURREKARIAK

Udal honek izapidetzen ari den espedienteari dagokionez, BELEN URTEAGA AIZPURUAK (NAN: 15989011D) eskatuta, Maria del Carmen Urteaga Olazabali, titular gisa, eta Jose Maria eta Maria del Carmen Murillo Urteaga titularkideei, titular gisa, emandako Urteaga Abruza A-117 panteoiaren titulartasunaren ondoriozko administrazio-egintza berrikusteko eskaera dela-eta. Aurrekari hauek ikusita

- Interesdunaren eskaria: 2023ko azaroaren 9an
- Alkate probidentzia: 2024ko uztailaren 11an
- Idazkaritzako txosten juridikoa-ebazpen proposamena: 2024ko uztailaren 11an

#### IRIZPENA

Ondorioz, 2024ko UZTAILAREN 17ko Lurraldea Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

**Alde:** Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)  
Asier Arakistain (EH Bildu)  
Marina Bidasoro (EH Bildu)  
Josemi Antia (EAJ)  
Iker Mardaras (EAJ)  
Ander Olaizola (EAJ)  
Duñike Agirrezabalaga (PSE)

**Aurka:** 0

**Abstentzia:** 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

**LEHENA.-** Hasiera ematea A-117 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia



ofizioz berrikusteko prozedurari. Erabakia 2005eko azaroaren 24an ebatzi zen, osoko bilkuraren erabaki bidez, Zumaiako Udaleko panteoien titulartasuna eguneratzeko prozeduraren barruan. Izan ere, uste da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluko deuseztasun-kausa honetan sartuta dagoela: "Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak edo presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmenak edo eskubideak eskuratzen badituzte horretarako funtsezko baldintzak betetzen ez direnean"; zehazki, hileta-emakidari buruzko eskubidea, horretarako funtsezko betekizunak bete gabe, panteoiari buruzko erabaki hori ez zelako egin Zumaiako udal-hilerriaren Araubidearen eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 108. artikulua arabera, aurkaratutako administrazio-egintzaren betearazpena etetea; izan ere, egintza horrek kalte konponezinak edo konpongaitzak eragin ditzake, hala nola hilobi horretan lurperatzeren bat egitea ezinezkoa izatea, ustez erabat deuseza den titulu batean oinarrituta.

**HIRUGARRENA.-** Prozeduraren hasiera interesdunei jakinaraztea, hamabost eguneko epean beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

**LAUGARRENA.-** Espedientea Idazkaritzari helaraztea, interesdunei entzuteko izapidea amaitu ondoren, aurkeztutako alegazioen berri eman eta txosten-proposamena egin dezan.

**BOSGARRENA.-** Txosten-proposamena Osoko Bilkurari aurkeztea, eta horrek bere egitea eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzea, ebazpen-proposamena erantsita.

**SEIGARRENA.-** Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso ondoren, nahitaezkoa eta loteslea denez, Osoko Bilkurari igorriko zaio hurrengo bilkuran.

Batzordeak osoko bilkurari aurkeztutako irizpena bat badator aurreko proposamenarekin, sinatzen duenak jakinarazten du, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 54. artikulua betez, irizpen hori aplikatu beharreko legedira egokituko dela.

Zumaia, 2024ko , uztailaren 17a.

Argi Yeregui Egaña  
LURRALDEA batzorde informatzailearen BATZORDEBURUA



IÑAKI OSTOLAZA: Hemen dauzkagu bi punto berdinak.

Lendabizikoan planteatzen dana da prozesua hasiera ematea A-117 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia ofizioz berrikusteko prozedurari hasiera ematea. Prozeduraren hasiera interesdunei jakinaraztea 15 eguneko epean beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

Espedientea idazkaritzari helaraztea, interesdunei entzuteko, izapidea amaitu ondoren, aurkeztutako alegazioei berri eman eta txosten proposamena egin dezan.

Eta gero txosten proposamena osoko bilkurari aurkeztea eta horrek bere egitea eta Euskadiko aholku batzorde juridikoaren irizpena eskatzea Ebazpen proposamena erantsita.

Eta Euskadiko aholku batzordea juridikoen irizpena jaso ondoren, nahitaezkoa eta loteslea denez, osoko bilkurari igorriko zaio hurrengo bilkuran.

Eztakit zerbaít komentatzeko badakazuen gai honekin.

Ondoren Alkateak bozka eskatu du.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

## **ERABAKIA:**

**LEHENA.-** Hasiera ematea A-117 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia ofizioz berrikusteko prozedurari. Erabakia 2005eko azaroaren 24an ebatzi zen, osoko bilkuraren erabaki bidez, Zumaiako Udaleko panteoien titulartasuna eguneratzeko prozeduraren barruan. Izan ere, uste da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluko deuseztasun-kausa honetan sartuta dagoela: "Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak edo presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmenak edo eskubideak eskuratzen badituzte horretarako funtsezko baldintzak betetzen ez direnean"; zehazki, hileta-emakidari buruzko eskubidea, horretarako funtsezko betekizunak bete gabe, panteoiari buruzko erabaki hori ez zelako egin Zumaiako udal-hilerriaren Araubidearen eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 108. artikuluan arabera, aurkaratutako administrazio-egintzaren betearazpena etetea; izan ere, egintza horrek kalte konponezinak edo konpongaitzak eragin ditzake, hala nola hilobi horretan lurperatzeren bat egitea ezinezkoa izatea, ustez erabat deuseza den titulu batean oinarrituta.

**HIRUGARRENA.-** Prozeduraren hasiera interesdunei jakinaraztea, hamabost eguneko epean beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.



**LAUGARRENA.-** Espedientea Idazkaritzari helaraztea, interesdunei entzuteko izapidea amaitu ondoren, aurkeztutako alegazioen berri eman eta txosten-proposamena egin dezan.

**BOSGARRENA.-** Txosten-proposamena Osoko Bilkurari aurkeztea, eta horrek bere egitea eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzea, ebazpen-proposamena erantsita.

**SEIGARRENA.-** Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso ondoren, nahitaezkoa eta loteslea denez, Osoko Bilkurari igorriko zaio hurrengo bilkuran.

## **2.5.- A-155 PANTEOIAREN TITULARTASUNA EMATEAREN ONDORIOZKO ADMINISTRAZIO-EGINTZA BERRIKUSTEA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.**

### **2024KO UZTAILAREN 17KO LURRALDEA BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, A-155 PANTEOIAREN TITULARTASUNA ALDATZEKO ERABAKIA OFIZIOZ BERRIKUSTEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEKO.**

#### **AURREKARIAK**

Udal honek izapidetzen ari den espedienteari dagokionez, NEREA EGAÑA EGAÑAK (NAN: 72458313X) eskatuta, Maria Belen Manterola Egañari, titular gisa, eta Juan Ignacio Manterola Chaparteguiri eta Maite Egaña Elorriagari, titularkide gisa, 2005eko azaroaren 24ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez Egaña Manterola A-155 panteoiaren titulartasuna ematearen ondoriozko administrazio-egintza berrikusteko eskaera dela eta

Aurrekari hauek ikusita

- Interesdunaren eskaria: 2024ko uztailaren 10an
- Alkate probidentzia: 2024ko uztailaren 11an
- Idazkaritzako txosten juridikoa-ebazpen proposamena: 2024ko uztailaren 11an

#### **IRIZPENA**

Ondorioz, 2024ko UZTAILAREN 17ko Lurraldea Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

**Alde:** Argi Yeregui Egaña (EH Bildu)  
Asier Arakistain (EH Bildu)  
Marina Bidasoro (EH Bildu)  
Josemi Antia (EAJ)  
Iker Mardaras (EAJ)  
Ander Olaizola (EAJ)  
Duñike Agirrezabalaga (PSE)



**Aurka:** 0

**Abstentzia:** 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

**LEHENENA.-** Hasiera ematea A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia ofizioz berrikusteko prozedurari. Erabakia 2005eko azaroaren 24an ebatzi zen, osoko bilkuraren erabaki bidez, Zumaiako Udaleko panteoien titulartasuna eguneratzeko prozeduraren barruan. Izan ere, uste da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluko deuseztasun-kausa honetan sartuta dagoela: "Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak edo presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmenak edo eskubideak eskuratzen badituzte horretarako funtsezko baldintzak betetzen ez direnean"; zehazki, hileta-emakidari buruzko eskubidea, horretarako funtsezko betekizunak bete gabe, panteoiari buruzko erabaki hori ez zelako egin Zumaiako udal-hilerriaren Araubidearen eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 16. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 108. artikulua arabera, aurkaratutako administrazio-egintzaren betearazpena etetea; izan ere, egintza horrek kalte konponezinak edo konpongaitzak eragin ditzake, hala nola hilobi horretan lurperatzeren bat egitea ezinezkoa izatea, ustez erabat deuseza den titulu batean oinarrituta.

**HIRUGARRENA.-** Prozeduraren hasiera interesdunei jakinaraztea, hamabost eguneko epean beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

**LAUGARRENA.-** Espedientea Idazkaritzari helaraztea, interesdunei entzuteko izapidea amaitu ondoren, aurkeztutako alegazioen berri eman eta txosten-proposamena egin dezan.

**BOSGARRENA.-** Txosten-proposamena Osoko Bilkurari aurkeztea, eta horrek bere egitea eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzea, ebazpen-proposamena erantsita.

**SEIGARRENA.-** Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso ondoren, nahitaezkoa eta loteslea denez, Osoko Bilkurari igorriko zaio hurrengo bilkuran.

Batzordeak osoko bilkurari aurkeztutako irizpena bat badator aurreko proposamenarekin, sinatzen duenak jakinarazten du, apirilaren 18ko 781/1986



Legegintzako Errege Dekretuak onartutako toki-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateginaren 54. artikulua betez, irizpen hori aplikatu beharreko legedira egokituko dela.

Zumaia, 2024ko , uztailaren 17a.

Argi Yeregui Egaña.  
LURRALDEA batzorde informatzailearen BATZORDEBURUA

IÑAKI OSTOLAZA: Lehen aipatutako kontu berdinak. Kasu honetan A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia ofizioz berikusteko prozedurari hasiera ematea. Lehengo kontuak aipatu ditudanez, ez dut errepikatuko,

Ondoren alkateak bozka eskatu du.

**Aldeko botoak: 17 boto (10 EH BILDU, 6 EAJ-PNV eta 1 Euskal Sozialistak)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

#### **ERABAKIA:**

**LEHENA.-** Hasiera ematea A-155 panteoiaren titulartasuna aldatzeko erabakia ofizioz berikusteko prozedurari. Erabakia 2005eko azaroaren 24an ebatzi zen, osoko bilkuraren erabaki bidez, Zumaiako Udaleko panteoien titulartasuna eguneratzeko prozeduraren barruan. Izan ere, uste da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluko deuseztasun-kausa honetan sartuta dagoela: "Ordenamendu juridikoaren aurkako egintza adieraziak edo presuntziozkoak, baldin eta egintza horiek ahalmenak edo eskubideak eskuratzen badituzte horretarako funtsezko baldintzak betetzen ez direnean"; zehazki, hileta-emakidari buruzko eskubidea, horretarako funtsezko betekizunak bete gabe, panteoiari buruzko erabaki hori ez zelako egin Zumaiako udal-hilerriaren Araubidearen eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 16. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

**BIGARRENA.-** Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 108. artikulua arabera, aurkaratutako administrazio-egintzaren be-tearazpena etetea; izan ere, egintza horrek kalte konponezinak edo konpongaitzak eragin ditzake, hala nola hilobi horretan lurperatzeren bat egitea ezinezkoa izatea, ustez erabat deuseza den titulu batean oinarrituta.

**HIRUGARRENA.-** Prozeduraren hasiera interesdunei jakinaraztea, hamabost eguneko epean beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten.

**LAUGARRENA.-** Espedientea Idazkaritzari helaraztea, interesdunei entzuteko izapidea



amaitu ondoren, aurkeztutako alegazioen berri eman eta txosten-proposamena egin dezan.

**BOSGARRENA.-** Txosten-proposamena Osoko Bilkurari aurkeztea, eta horrek bere egitea eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena eskatzea, ebazpen-proposamena erantsita.

**SEIGARRENA.-** Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena jaso ondoren, nahitaezkoa eta loteslea denez, Osoko Bilkurari igorriko zaio hurrengo bilkuran.

### 3.- UDALBATZAKO ORGANOEEN KONTROLA ETA FISKALIZAZIOA.

#### 3.1.- UDALAREN 2024KO 15. ERREPARO ORRIA ETA HONEN ALKATE DEKRETUAREN BERRI EMATEA.

#### KONTU-HARTZAILEAREN ERREPARO ORRIA (15/2024):

#### AURREKARIAK:

Kontu-hartzaileak, Zumaiako Udaleko kontratuen egoeraz interesaturik honako kontratu hauek epez kanpo aurkitu ditu fakturei oniritzia ematerakoan:

#### KONTRATUEN ERANSKINA

Enpresa	Kontratututako zerbitzua	Data Kontratua	Iraupena	data amaitu
Eulen	Kudeaketa Branka	01/02/2009	1 + 1	01/02/2011
UTE LV ZUMAIA	Kale garbiketa	11/01/2016	1+1	11/01/2018
Arazi IKT SL	Algorri kudeaketa	20/04/2016	1+1	20/04/2018
Kastore Gest S.L.	Hainbat zerbitzu	05/11/2009	2+1	05/11/2012
Serkonten	Edukiontzi higienikoak	01/11/2016	1	01/11/2017
Erreka	Ate automatikoen mantenua	01/10/2016		01/10/2017
Kalexka elkarte	Kale heziketa/esku hartze programa	01/07/2017	2+2	01/07/2021
JON URDINETA	Psikomotrizista	14/12/2017	2+2	30/06/2022
BPXPORT S.L.	Kiroldegiko zerbitzua	12/09/2012	2+2	12/09/2016
GEZE IBERIA S.R.L.U.	Ate automatikoa mantenua	23/07/2019	1	23/07/2020
TECNOGYM TRADING S.A	Gimnasioko makinariaren mantenua			

#### Aplikagarria zaizkion arauak:

1) 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena + Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.



2) 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

3) 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.

4) 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena eta Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duen abenduaren 15eko 86/2015 Foru Dekretua aldatzen duena.

5) RESOLUCIÓN de 2 de junio de 2008, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 30 de mayo de 2008, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos.

6) Resolución de 25 de julio de 2018, de la Intervención General de la Administración del Estado, por la que se publica el Acuerdo del Consejo de Ministros de 20 de julio de 2018, por el que se da aplicación a la previsión de los artículos 152 y 147 de la Ley General Presupuestaria, respecto al ejercicio de la función interventora en régimen de requisitos básicos en el ámbito de los contratos del sector público y encargos a medios propios.

#### Zehaztasunak:

21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa.

" 67. artikulua. Legezketasunaren kontrola."

1.- Kontu-hartze-eginkizunaren helburua, haren legezketasun kontrolaren ikuspegitik, toki erakundeen eta beraien organismo autonomoen egintza guztiak, beti ere haiek eskubide eta betebeharrak ekonomikoak edo gastuak aintzatestea eta likidatzea eragiten dutenean, beraietatik sortzen diren sarrera eta ordainketak eta administratutako ondasun publikoen bilketa, inbertsio eta, oro har, aplikazioa fiskalizatzea da, kudeaketa kasuan kasuko aplikatu beharreko xedapenen arabera izan dadin.

2.- Eginkizun horren erabilerak honako hauek eskuhartuko ditu:

a) Eskubideak edo betebeharrak ekonomikoak sortzea edo baloreen fondoak mugitzea eragin dezaketen egintza, agiri edo espediente guztien kontu-hartze kritikoa edo aurretiazkoa.

b) **Ordainketa-aginduaren erazko kontu-hartzea.**

c) **Ordainketaren kontu-hartze materiala.** Udaltzatzen erabaki batengatik kontrol hori laginketa bidez baimentzen denean izan ezik, kontu-hartzailearen sinadura foru arau honetako 57. artikuluan aurreikusitako fondoan erabilpenerako mankomunatuak erantsiko zaie.



"70. artikulua. Erreparook."

1.- Kontu-hartze-eginkizuna erabiltzean, organo kontu-hartzailea aztergai diren egintzen, agirien edo espedienteen edukiarekin edo itxurarekin ados ez badago, bere erreparook idatziz azaldu beharko ditu erabakia edo ebazpena hartu baino lehen.

3.- Erreparoa gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetzea etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean:

c) Espedientean **funtsezko beharkizun** edo izapideak alde batetara utzi direnean.

4.- Erreparook ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, udalburuak ebatzi beharko du eztabaida, eta beraren ebazpena betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.

**27/2013 Legea, abenduaren 27koa, toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunari buruzkoa.**

Bigarren artikuluan Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua aldatzen du eta honela geratu da aldatuta martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki-ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua:

"218. artikulua. Desadostasunen ebazpenari buruzko txostenak."

1. Kontu-hartzaitzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez toki-entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.

**Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**

Korporazioko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

2. Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-entitateko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitura duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

3. Kontu-hartzaitzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-entitateko lehendakariak eta korporazioaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»

**32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Sektore Publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena**



12. artikulua. Eragozpenak.

1. Organo kontu-hartzaileak adierazten badu ez dagoela ados aztertutako egintza, agiri edo espedienteen mamiarekin edo formarekin, bere

eragozpenak idatziz azaldu beharko ditu. Eragozpen horiek irizpidea finkatzen duten arauetan oinarritutako arrazoibideen bitartez motibatuz behar dira, eta espedienteetan jasotako oztupo guztiak barnean hartuko dituzte.

2. Baldin eta eragozpenak gastuen onespenerari edo xedapenerari, obligazioen onarpenari edo ordainketen aginduari eragiten badiot, espedientearen izapidea etengo da harik eta hura ebatzi arte, betiere 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako kasuetan gertatzen denean.
3. Aipatutako 70.3 artikulua c) apartatua jasotako kasuan, bidezkoa izango da eragozpen etenarazle bat azaltzea, honelakoak gertatuz gero:
  - a) Gastua onartzeko eskumenik ez duen organo bati proposatzen zaionean.
  - b) Obligazioaren onarpenaren frogagiritan irregulartasun larriak sumatzen direnean edo jasotzailearen eskubidea behar adina egiaztatzen ez denean.
  - c) Baldintzak edo izapideak ez betetzearen ondorioz egintza deuseztatuta gelditu daitekeenean edo, kudeaketa administratiboarekin aurrera jarraituz gero, toki entitateko diruzaintzari edo hirugarrenei diru galera ekarri ahal zaienean.

Korporazioko osoko bilkurak beste baldintza edo izapide osagarri batzuk onartu ahal izango ditu, organo kontu-hartzaileak txostena egin ondoren, eta haiek ere funtsezkotzat hartuko dira.

4. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen duenean, bertan jasotako akatsak zuzendu beharko ditu eta jarduketak berriro bidali beharko dizkio organo kontu-hartzaileari hamabost eguneko epean. Eragozpena jasotzen duen organoak hura onartzen ez duenean, aldiz, foru dekretu honetako 15. artikuluan xedatutako prozedura hasiko du.

5. Baldin eta espedienteetan akatsak gertatzen badira funtsezkotzat ez diren baldintzak edo izapideak eta 21/2003 Foru Arauaren 70.3 artikuluan jasotako gainerakoak ez betetzearen ondorioz, Kontu-hartzaileak aldeko txostena egin ahal izango du, baina, egintza eraginkorra izango bada, akats horiek espedientea onartu aurretik zuzendu beharko dira. Organo kudeatzaileak akats horiek zuzendu izanaren frogagiriak bidaliko dizkio organo kontu-hartzaileari. Baldin eta organo kudeatzaileak espedienteak aurrera jarraitzeko ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, eragozpena azaldutzat hartuko da, eta horrek ez du eragotziko, egoki deritzen kasuetan, foru dekretu honetako 15. artikuluan jasotako prozedura hastea. Organo kontu-hartzaileak Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaliko ditu apartatu honetan jasotakoaren arabera azaldutako eragozpenen aurka hartzen diren ebazpen eta erabakiak.

**b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:**



FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/3/31	2024/F24/633	BPXPORT XXI SLU	Igeriketa eskolarra 2024/02/19-2024/03/18	2.589,64
2024/5/28	2024/F24/907	BPXPORT XXI SLU	Igeriketa Zumaiena 2024/03/18-2024/04/30	3.452,86
2024/5/31	2024/F24/974	BPXPORT XXI SLU	Igeriketa Herri eskola 2024/05/06-2024/05/31	1.726,43
2024/5/31	240199	ARAZI IKT	MAIATZA Algorri natur baliabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	5.442,81
2024/6/19	3946266	EULEN SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS	MAIATZA - Eguneko zentroa	23.907,80
				<b>37.119,54</b>

**ONDORIOAK:**

a) Zerrendatutako kontratu guztiak irregulartasun egoeran daudelarik, lehenbailehen eguneratu behar dira. Bestalde aipatu beharra dago hilero ordaintzen den kopuruaren garrantzia kuantitatiboa kontuan izanda, gizarte zerbitzuetako kontratua, hau da, eguneko zentroaren kudeaketa zerbitzuak, kale garbiketa zerbitzuak eta kiroldegiko zerbitzuaren kontratuak lehentasuna eduki beharko lukete kontratuen eguneratze prozesuan.

b) Momentuz, zerrendatutako faktura guztien ordaintzaren izapidetzea etengo da Alkateak ebatzi arte. Kontu-hartzaileak txostena helaraziko dio Osoko Bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez alkateak hartutako ebazpen guztien inguruan eta **puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.**



**ALKATE DEKRETUA**

**AURREKARIAK**

2024ko ekainaren 12an kontu-hartzaileak honako erreparo orria jakinarazi dit (14/2024)

Kontu-hartzaileak egindako txostenaren arabera, ohartarazten du Legezko esleipen prozedura jarraitu ez duten fakturak iristeaz gain, indarrean ez dauden kontratuak dituztenak ere iritsi direla.

Eta, honako faktura hauen ordainketaren izapidetzea eten du:

**b) Indarrean ez dauden kontratu batzuen fakturak iritsi dira eta honako hauek dira:**

FAKTURAREN DATA	FAKTURA ZENBAKIA	INTERESATUA	KONTZEPTUA	GUZTIZKOA BEZA BARNE
2024/3/31	2024/F24/633	BPXPORT XXI SLU	Igeriketa eskolarra 2024/02/19-2024/03/18	2.589,64
2024/5/28	2024/F24/907	BPXPORT XXI SLU	Igeriketa Zumaiena 2024/03/18-2024/04/30	3.452,86
2024/5/31	2024/F24/974	BPXPORT XXI SLU	Igeriketa Herri eskola 2024/05/06-2024/05/31	1.726,43
2024/5/31	240199	ARAZI IKT	MAIATZA Algorri natur ballabideen interpretazio zentroaren kudeaketa	5.442,81
2024/6/19	3946266	EULEN SERVICIOS SOCIO SANITARIOS	MAIATZA - Eguneko zentroa	23.907,80
				<b>37.119,54</b>

**ERABAKIA:**

Beharrezkoak diren zerbitzuak ematen jarraitu ahal izateko dagozkien ordainketak egitea agintzen dut.

Alkatea

Alkateak erreparo orriari buruzko azalpenak eta honen ebazpenaren ordainketaren aginduaren berri eman du.



**3.2.- UDAL AURREKONTUAREN 9., 10., ETA 11. KREDITU ALDAKETEN BERRI EMATEA.**

**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 1000.500.929.00.01 2024	KREDITU GLOBALA	56.452,43	30.000,00	26.452,43
	<b>GUZTIRA</b>	<b>56.452,43</b>	<b>30.000,00</b>	<b>26.452,43</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0100.601.153.21.01 2024	HOBETZE OBRAK BIDE PUBLIKOETAN	100.000,00	30.000,00	130.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>100.000,00</b>	<b>30.000,00</b>	<b>130.000,00</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,

Alkatea



**KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA**

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0300.481.334.01.01 2024	MUSIKA-ELKARTEEI DIRU LAGUNTZAK	38.000,00	7.246,39	30.753,61
	<b>GUZTIRA</b>	<b>38.000,00</b>	<b>7.246,39</b>	<b>30.753,61</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0300.209.334.01.01 2024	SOINU EKIPOEN ALOKAIRUA	14.000,00	7.246,39	21.246,39
	<b>GUZTIRA</b>	<b>14.000,00</b>	<b>7.246,39</b>	<b>21.246,39</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,

Alkatea

ESKU22b79c16-d678-468c-b573-98ff80b42a2a



### KREDITU TRANSFERENTZIEN PROPOSAMENA

#### Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 0900.227.920.01.92 2024	E-MAILA BUZOIAK HODEIAN	9.600,00	7.000,00	2.600,00
1 0300.226.336.00.99 2024	MEMORIA BIZIKIDETZA	8.000,00	7.000,00	1.000,00
1 0300.227.332.20.99 2024	ARTXIBO HISTORIKOAREN PROGRAMA	2.000,00	700,00	1.300,00
1 1200.226.231.50.94 2024	GENERO PRESTAKUNTZA	18.150,00	7.000,00	11.150,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>37.750,00</b>	<b>21.700,00</b>	<b>16.050,00</b>

#### Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)

Partida (*)	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 0900.626.920.01.01 2024	INBERTSIO INFORMATIKOAK	15.000,00	7.000,00	22.000,00
1 0300.622.333.10.02 2024	HOBETZE OBRAK AITA MARI ARETOA	13.500,00	7.700,00	21.200,00
1 1200.481.231.50.03 2024	EMAKUMEON* ETXEA	45.000,00	7.000,00	52.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>73.500,00</b>	<b>21.700,00</b>	<b>95.200,00</b>

\* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

Zumaian,  
Jarduneko alkatea  
(2024/836)



Alkateak Udal aurrekontuaren 9., 10., eta 11. kreditu aldaketen berri eman du.

### 3.3.- ALKATE EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Alkateak alkate ebazpenen berri eman du.

### 4.- ESKARI – GALDERAK

Alkateak Josemiri hitza eman dio.

JOSE MIGUEL ANTIA: Hemen egin zan bilera bat Goiko plazako bizilagunekin eta galdetu nun ea zergatik ez zan Erkibeko aurreko plaza hori habilitatzen aparkamentuentzako. Jende askok galdetu dit eta plenora ekartzen det.

Baitare, horrekin batera, autobusak udaran herri barrura ez dira sartzen eta baita ere autobusen apartamentu hori gelditzen da nolabait. Herri erdi-erdian dago eta baita ere gelditzen da aparkatzeko inhabilitao. Baita ere egokitzea aparkamentuak sortzeko, aparkamentuak izango ziren nik uste det herritarrentzat. Ea arazoren bat dagoen hori egiteko edo ez.

IÑAKI OSTOLAZA ESNAL: Beste zerbaít Duñike, edo ?...Ez

Erkibeko aparkaleku hauek zelai hori erabiltzen da soilik une puntualetan, Beheko Plazan ekimen bat baldin badago edo eta bertan aparkatzeko han egin behar dutenak. Uste det azkena bi kamioi eon ziala azken aurreko hoietako bat pulpoko festa edo janaria eon zanin han aparkatu zuten, nik usten det baita ere azokak eta daudenian eta han aparkatzen dituztela baino ez da aparkalekua, baizik eta zerbitzioa ematen diona ekintzak edo jarduerak egiten dienean Beheko Plazan.

Eta bestian moldaketari eta aparkalekuak ipintzea, ez dakit pintatu egin beharko litzake ez?, ez dakit, guk printzipioz ez dugu gaizki ikusten lagatzia dagoen bezela, baino bueno buelta bat eman diogu. Ez zitzaigun okurritu, egia esan, karga deskargarako bada gune bat erabili daitekeena autobusak ez daudenian, eta bueno holako espazioak ere beharrezkoak dia baina bueno hurrengo egoten geanian bilera udaltzainburuarekin komentatuko dugu eta mahai gainean ipiniko dugu.

JOSE MIGUEL ANTIA: Bale de akuerdo, nik uste det hogei bat plaza lortu daizkela batetik bestera, eta ikusiaz eta behintzat nik dakitenez eta erdigunean bizi diran bizilagunak askorek komentatzen dute, arazoak edukitzen dituztela aparkamentuak bilatzeko. Iruditzen zait oain udarako gutxienez behintzet hori egitea badagoen.

IÑAKI OSTOLAZA: Ados, eskerrik asko. Zerbaít komentatzeko gehio?

Beno ba honekin bukatutzat ematen deu uztailleko osoko bilkura, abuztuan ezta kau, irailean ikusiko dugu elkar. Ondo-ondo pasa festak udara ta hori dana. Bale.

-----



Zumaiako Udala

2024IAKU0009

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko seiak eta hemezortzi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Zumaian, 2024ko urriaren 2an

Idazkaria  
ALEXANDER MARAÑON MUÑOZ

Foruen plaza 1 • Tel.: 943 865025 • Faxa: 943 862456 • 20750 ZUMAIA  
[www.zumaia.eus](http://www.zumaia.eus) • e-mail: [udala@zumaia.eus](mailto:udala@zumaia.eus)



EKS | CSV: **ESKU22b79c16-d678-468c-b573-98ff80b42a2a**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=08110>

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IAKU0009-Dokumentu orokorra/Documento genérico (ZUMAIAKO UDALA)